



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko irailaren 15a

76. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak Nafarroako Baldorban interneteko sarbidea eta ADSL zerbitzua hobetzeko asmoa duen, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak administrazioko behin-behinekotasun tasa handia zuzentzeko hartu behar dituen neurriei buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (5. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer iritzi duen Iruñean 2008ko udan gauzatutako kultur programazioari buruz, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (6. or.).
- Galdera, jakiteko zer azterketa ekonomikotan eta eraginkotasunari buruzkotan oinarritzen den Nafarroako Gobernuko lehendakari jauna, esaten duenean zerbitzu publikoak ezin izanen lirakekeela mantendu eta zalantzan jartzen dituzten funtzionarioen zerbitzuaren eraginkortasuna eta produktibitatea, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (7. or.).
- Galdera, Euskarabideko Aholkularitza eta Ikerketarako Zerbitzuko zuzendaria kargutik kendu izanaren arrazoiei buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (7. or.).
- Galdera, Ribaforadara NA-232 errepidetik sartzeko biribilguneak argiztatzeko eta txukuntzeko asmoari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (8. or.).
- Galdera, krisialdi ekonomikoa dela-eta lanpostu hutsak izozteak langile publikoen plantillan izan den eraginari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Gobernuko kontseilarien eta foru administrazioko goi karguen soldatak izozteak diru publikoari ekarriko dion aurrezki errealarari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (9. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak Tuterako ekohiria ezartzearen aurkako iritzia eman duen, Ana Figueras Castellano andreak egina (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak krisialdi ekonomikoari aurre egiteko kultura eta turismo arloan hartutako neurriei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (10. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik ez den bete “Toki ogasunen saneamendurako programa” izeneko kontusaila, José Luis Izco Biarge jaunak egina (12. or.).
- Galdera, mendekotasunaren legea aplikatzearen ondoriozko langile-kontratazioei, lanpostuen zerrendari eta aurreikuspeni buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (12. or.).

- Galdera, ikurren legearen aplikazioaren ondorioz udaletara bidalitako errekerimenduei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Media Luna parkeko suhiltzaileen parkearen etorkizunari eta etorkizunean Alde Zaharrak eta Bigarren Zabalguneak izanen duten suhiltzaileen zerbitzuari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Liburutegia eta Filmoteka eraikitzeke lanei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko zer kontusailetan izanen duen eragina aurrekontuen murrizketak, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Antzerki Sareari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Museoen Foru Legeari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroako dokumentu ondareari buruzko Foru Legea Parlamentuan aurkezteko epeari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (16. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik hautatu den aurrekontuen murrizketarako toki entitateek Otik 3 urterako ikaste-txeak eraikitzeke dirulaguntzen kontusaila, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Aragón ibaitik eta Villafrancako Europar Batasunaren Intereseko Lekutik gertu dagoen arroaren kutsadura arriskuari buruz, ondoko lursailean hondakin organikoak kontrolik gabe botatzearen ondorioz, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Villafrancako hondakin organikoak kontrolik gabe botatzearen ondorioz ireki diren zehapen-espedientei buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (19. or.).
- Galdera, satellite bidezko interneteko banda zabalak Nafarroa osoan estaldura izateari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Eskola Kontseiluko zuzendari Ángel Urtasun jauna kargutik kentzeko arrazoiei buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (20. or.).
- Galdera, kultur intereseko ondare deklaraturiko eta Nafarroako kultur ondareari buruzko Foru Legearen arabera banatutako higiezinari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (21. or.).
- Galdera, prestatu diren, prestatzen ari diren eta etorkizunean eginen diren plan zuzendariei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (22. or.).
- Galdera, mendekotasun egoeraren aitortpenari eta Nafarroako Mendekotasun Agentziako ebaluatzaileei buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (23. or.).
- Galdera, Cascanteko kultur etxea eraikitzeari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (24. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak ez duen ordaindu 2007ko maiatzeko uholdeek Etxalaren eragindako kalteen gastuen %100, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (25. or.).
- Galdera, N-121-A eta NA-4400 errepideen arteko bidegurutzeari eta eskualde horretako beste errepide batzuei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (25. or.).
- Galdera, Donejakue bideko autobioiako trafikoa neurtzeko sistemari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (27. or.).
- Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (27. or.).
- Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langile kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (28. or.).
- Galdera, Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuaren Eledunaren Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (29. or.).
- Galdera, Toki Administrazio Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (30. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (31. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (32. or.).
- Galdera, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (33. or.).

- Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuan abuztuaren leian dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (34. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuan abuztuaren leian dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (35. or.).
- Galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan abuztuaren leian dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (36. or.).
- Galdera, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan abuztuaren leian dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (37. or.).
- Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuan abuztuaren leian dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (38. or.).
- Galdera, Ezkanizko NA-2100 errepideari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (39. or.).
- Galdera, Medea clusterraren deialdian Nafarroako proiektuek parte hartzeari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (39. or.).
- Galdera, IKTen Hiria proiektuaren egoerari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (40. or.).
- Galdera, Nafarroako enpresek eduki digitalen garapenarekin lotuta aurkeztu dituzten proiektuei buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (40. or.).
- Galdera, Industria Ministerioak antolatutako finantzaketaren babesean eduki digitalen proiektuetarako laguntzak eskatu dituzten irabazi asmorik gabeko entitateei buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (41. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak bere asmoak aldatu behar dituen, IKT maileguei, gazteentzako eta unibertsitarioentzako maileguei eta herritartasun digitalerako maileguei dagokienez, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (41. or.).
- Galdera, irabazi asmorik gabeko entitateek, eduki digitalen azpiprograman, eta toki entitateek ezagutzazentzako sortzeko aurkeztutako eskaerei eta horien xedeari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (42. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak jakinarazi ote zien enpresei, toki entitateei eta irabazi asmorik gabeko entitateei IKTak landa eremuan sartzeko deialdi bat dagoela, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (43. or.).
- Galdera, jakiteko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak Nafarroako Liburutegi Nagusia eta Filmoteka izeneko kontusaileko diru guztia gastatzeko asmorik duen, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (43. or.).
- Galdera, N-121-A eraikitze lanetan aurreikusitako epeak, kontseilari andreak berreskurazintzat dituenak, bete ezin izateko arrazoi objektiboari buruzkoa, José María Vázquez Royo jaunak egina (44. or.).
- Galdera, 2007an eta 2008an gizarte zerbitzuen arloko jardueretan alta emandako afiliatuen hazkundera buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (45. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak ezarritako gastu publikoaren austeritate-neurriari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (45. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik dagoen Nafarroa azken tokian mendekotasuna duten pertsonen balorazio kopuruari dagokienez, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (46. or.).
- Galdera, Iruña-Tafalla-Castejón-Tutera eskualdeko tren zerbitzuari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (46. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak García de Góngora y Torreblanca jaunak 1628an sinatutako liburua erosteko duen asmoari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (47. or.).
- Galdera, Iberdrolak Bortzirietan, Malerrekan eta Baztanen ematen duen zerbitzuaren kalitateari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (48. or.).



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak Nafarroako Baldorban interneteko sarbidea eta ADSL zerbitzua hobetzeko asmoa duen.***PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak Nafarroako Baldorban interneteko sarbidea eta ADSL zerbitzua hobetzeko asmoa duen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

Galdera honi erantzutea nahi dut:

Zergatik jarraitzen dute Nafarroako Orbaibarren, XXI. mendean, 40 Kbps-eko abiadurarekin Interneten sartzeko? Noiz ahalbidetuko du Nafarroako Gobernuak ADSL zerbitzu duina eta esku-ragarria Nafarroako eremu honetarako, horrela Nafarroako gainerako eremuen baldintza beretan informazioa eskuratu eta aberastasuna sortzen laguntzeko?

Iruñean, 2008ko uztailaren 31n

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

---

**Galdera, Nafarroako Gobernuak administrazioko behin-behinekotasun tasa handia zuzentzeko hartu behar dituen neurriei buruzkoa.***ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak administrazioko behin-behinekotasun tasa

handia zuzentzeko hartu behar dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

POR 128

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

Zioen azalpena:

Egun, foru administrazioan dauden langileen %36 baino gehiago behin-behineko langileak dira. Ehuneko horrek ia hirukoiztu egiten du Europar Batasuneko aldi baterako langileen tasa, eta Nafarroako lan merkatuko batez bestekoa baino hamar puntu handiagoa da.

Tasa hori urte askoan mantendu da, eta handitu ere bai; baina UPN eta CDNren Gobernuak ez du ezer ere egiten horren aurrean.

Horrek oso ondorio negatiboa dakar administrazioan behin-behineko kontratua duten langileen zat, izan ere, urteak joan urteak etorri, ez dute orekarik eta segurtasunik lortzen haien lan-baldintzetan.

Egoera horrek, halaber, ondorio negatiboak ditu gizarte osoarentzat; izan ere, laneko ezegonkortasunak larriki kaltetzen ditu administrazioak bere oinarritzko zerbitzu publikoak eskaintzeko dituen baldintzak eta bermeak.

Galdera:

Zein neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak administrazioiko behin-behinekotasun tasa handia zuzentzeko?

Iruñean, 2008ko abuztuaren 27an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

---

**Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer iritzi duen Iruñean 2008ko udan gauzatutako kultur programazioari buruz.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer iritzi duen Iruñean 2008ko udan gauzatutako kultur programazioari buruz.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudiaren xedatutakoaren arabera, Iruñean 2008ko udan izan den kultur eskaintza publikoa dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Zein da 2008ko udan Iruñean Nafarroako Gobernuak burutu duen programazio kulturalaren gainean egiten duen balorazioa?

Iruñean, 2008ko abuztuaren 29a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

**Galdera, jakiteko zer azterketa ekonomikotan eta eraginkotasunari buruzkotan oinarritzen den Nafarroako Gobernuko lehendakari jauna, esaten duenean zerbitzu publikoak ezin izanen liratekeela mantendu eta zalantzan jartzen dituenean funtzionarioen zerbitzuaren eraginkortasuna eta produktibitatea.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer azterketa ekonomikotan eta eraginkotasunari buruzkotan oinarritzen den Nafarroako Gobernuko lehendakari jauna, esaten duenean zerbitzu publikoak ezin izanen liratekeela mantendu eta zalantzan jartzen dituenean funtzionarioen zerbitzuaren eraginkortasuna eta produktibitatea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Miguel Sanz Sesma jaunari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Galdera

Nafarroako Gobernuko lehendakari Miguel Sanz Sesma jaunak duela gutxi egindako adierazpen batzuetan jakitera eman zuen KPIren igoerarekin gehi administrazioko sindikatuek eskatzen duten %0,5arekin, ezin izanen zitzaizela zerbitzu publikoei eutsi, eta zalantzan jartzen zuen funtzionarioen zerbitzuaren eraginkortasuna eta produktibitatea.

Adierazpen horiek direla-eta, parlamentari honek haxe jakin nahi du:

Zer azterketa ekonomikotan eta eraginkotasunari buruzkotan oinarritzen da lehendakari jauna adierazpen horiek egiteko?

Iruñean, 2008ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

**Galdera, Euskarabideko Aholkularitza eta Ikerketarako Zerbitzuko zuzendaria kargutik kendu izanaren arrazoiei buruzkoa.**

*MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, Euskarabideko Aholkularitza eta Ikerketarako Zerbitzuko zuzendaria kargutik kendu izanaren arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Zerk eragin du Euskarabideko Aholkularitza eta Ikerketarako Zerbitzuko zuzendaria kargutik kentzea?

Iruñean, 2008ko ekainaren 30ean

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

---

**Galdera, Ribaforadara NA-232 errepidetik sartzeko biribilguneak argiztatzeko eta txukuntzeko asmoari buruzkoa.**

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Ribaforadara NA-232 errepidetik sartzeko biribilguneak argiztatzeko eta txukuntzeko asmoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Zioen azalpena

2008ko urtarrilaren 10ean galdera bat sartu genuen erregistroan, 7-08/PES-00006 espediente

zenbakiarekin, zeinaren bidez jakin nahi baitzen ea Nafarroako Gobernuak baduen asmorik A-68 autobidetik Ribaforadara sartzeko biribilguneak argiztatzeko eta txukuntzeko.

Otsailaren 18an, erregistroko 499 zenbakiko erantzunaren bidez, Nafarroako Gobernuak adierazi zuen hiru hilabeteko epean gehienez ere argiztatuta egonen zirela biribilguneak.

Erantzunean orobat adierazten zen aurreikusitako dagoela biribilgune horiek berriro landareztatzea, eta horretarako hutsarteetan birlanaketak egin eta zuhaixka berriak landatuko direla.

Ribaforada eta NA-68 errepidea lotzeko bi biribilgune eraikitze obrak orain dela bi urte luze bukatu ziren, baina argiztatu gabe jarraitzen dute (farolak jarrita daude), bai eta txukundu gabe ere; ondorioz, argi faltak eta txukundu gabe egoteak Ribaforadako sarbide horri ematen dion irudi txarrak arriskutsuagoa bihurtzen du gune hori.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak hau erantzutea nahi dugu:

Gobernuak ba al du asmorik Ribaforadara NA-232 errepidetik sartzeko biribilguneak argiztatu eta txukuntzeko?

Iruñean, 2008ko uztailaren 4an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz



## **Galdera, krisialdi ekonomikoa dela-eta lanpostu hutsak izozteak langile publikoen plantillan izanen duen eraginari buruzkoa.**

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, krisialdi ekonomikoa dela-eta lanpostu hutsak izozteak langile publikoen plantillan izanen duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari

Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Gobernuak iragarri du langile publikoen plantilla izoztuko duela, egungo ekonomia-krisiari aurre egiteko neurri gisa. Gobernuko lehendakariak adierazi zuenez, lanpostu hutsak ez dira beteko, salbuespenak salbuespen, baldin eta aurreikusten bada hiru hilabete baino gutxiagokoa izatea baimenek, amatasun-bajek, medikuen bajek eta gisakoek eragindako hutsaldia.

Zenbat milaka lanordu eta lanpostu galduko dira izozte horren eraginez?

Nola konponduko da neurri horrek herritarrei ekarriko dien kalitate nahiz arreta eza?

Iruñean, 2008ko uztailaren 16an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, Gobernuko kontseilarien eta foru administrazioko goi karguen soldatak izozteak diru publikoari ekarriko dion aurrezki errealari buruzkoa.**

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Gobernuko kontseilarien eta foru administrazioko goi karguen soldatak izozteak diru publikoari ekarriko dion aurrezki errealari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Gobernuak iragarri du Gobernuko kontseilarien nahiz foru administrazioko goi karguen soldatak izoztuko dituela, egungo ekonomia-krisiari aurre egiteko neurri gisa.

Zenbateko aurrezki errealari ekarriko dio neurri horrek diru publikoari?

Iruñean, 2008ko uztailaren 16an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak Tuterako ekohiria ezartzearen aurkako iritzia eman duen.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak Tuterako ekohiria ezartzearen aurkako iritzia eman duen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Nafarroako Gobernuak asko atzeratu du Tuterako ekohiria ezartzearen aurkako iritzia ematen duen dokumentua, eta atzerapen horrek kostu handia ekarriko dio Tuterako Udalaren kuxari; izan ere, proiektua bideraezina dela egiaztatu da. Zergatik atzeratu da horrenbeste?

Iruñean, 2008ko uztailaren 16an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak krisialdi ekonomikoari aurre egiteko kultura eta turismo arloan hartutako neurriei buruzkoa.**

*ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak krisialdi ekonomikoari aurre egiteko kultura eta turismo arloan hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones

Morrás, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena

Azken asteotan, ekonomia-krisiari eta Foru Ogasunaren dirubilketa-jaisierari aurre egite aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurrien berri ematen ari dira hedabideak. Neurri horien artean, ondokoak nabarmentzen dira: 150 milioi euro gutxiago aurreikustea 2008rako gastuetarako, Nafarroako Gobernuak goi karguen soldatak izoztea eta, salbuespenak salbuespen, Foru Komunitateko administrazio plantilla izoztea.

Ekonomiaren egoeraren bilakaera ikusita, bidezkoa da jakin nahi izatea gastuetako zer kontusail murriztu edo desager daitezkeen, hurrengo ekitaldiei begira kontusail horiek ken daitezen insistitze aldera, hala behar balitz.

Herritarrak ados daude, oro har, ondokoari dagokionez: posible da gastua murriztea hitzaldi,

ikastaro, jardunaldi, argitalpen eta zuzeneko nahiz zeharkako publizitate kanpainei lotutako zerbitzuetan eta programetan; izan ere, diru kopuru handia behar da horiek denak egiteko, baina ez dute lehentasunik errentagarritasun instituzional, ekonomiko edo sozialaren aldetik.

Hori dela eta, ondokoa jakin nahi dugu, programa horiek Kultura eta Turismo Departamentuan duten garrantzia ezagutzeko:

#### Galderaren testua

##### 1.- Kulturaren eremuan:

– Hitzaldi, ikastaro nahiz jardunaldietara bideratutako kontusailak; aurreikusitako zenbateko osoak eta galderari erantzuten zaion egunean gastua zertan den.

– Argitalpenak: aurreikusitako zenbateko osoak eta galderari erantzuten zaion egunean gastua zertan den.

– Departamentuaren oinarrizko programak: programa bakoitzerako publizitatea egiteko aurreikusi den zenbatekoa eta programa osoaren barruan

an zenbateko ehunekoa egiten duen. Galderari erantzuten zaion egunean gastua zertan den.

##### 2.- Turismoaren eremuan:

– Hitzaldi, ikastaro nahiz jardunaldietara bideratutako kontusailak; aurreikusitako zenbateko osoak eta galderari erantzuten zaion egunean gastua zertan den.

– Argitalpenak: aurreikusitako zenbateko osoak eta galderari erantzuten zaion egunean gastua zertan den.

– Nazioko nahiz nazioarteko azoketara eta bestelako ekitaldietara joatea: aurreikusitako zenbateko osoak eta galderari erantzuten zaion egunean gastua zertan den.

– Departamentuaren oinarrizko programak: programa bakoitzerako publizitatea egiteko aurreikusi den zenbatekoa eta programa osoaren barruan zenbateko ehunekoa egiten duen.

Iruñean, 2008ko uztailaren 21ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, jakiteko zergatik ez den bete “Toki ogasunen saneamendurako programa” izeneko kontusaila.**

*JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Luis Izco Biarge jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik ez den bete “Toki ogasunen saneamendurako programa” izeneko kontusaila.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena:

Nafarroako Gobernuaren eta PSN-PSOEren arteko aurrekontu-akordioan 200.000 euroko kontusail hau sartu zen Toki Administrazioako Departamentuan, zailtasun ekonomikoak dituzten udalei, Cintruénigokoa, Azagrako eta Cadreitakoa kasu, laguntzearen: “Toki ogasunen saneamendurako programa” (21200 211004 4609 922500 zenbakia).

Galderaren testua

Zergatik dago oraindik ere bete gabe kontusail hori?

Iruñean, 2008ko uztailaren 22an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, mendekotasunaren legea aplikatzearen ondoriozko langile-kontratazioei, lanpostuen zerrendari eta aurreikuspeni buruzkoa.**

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, mendekotasunaren legea aplikatzearen ondoriozko langile-kontratazioei, lanpostuen zerrendari eta aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Menpekotasunari buruzko legearen aplikazioari buruzko galdera.

• Zenbat pertsona kontratatu ziren 2007an Menpekotasunari buruzko legea aplikatzeko?

• Zein da aipatu legea aurten aplikatzeko lanpostuen zerrenda? Zein da 2009rako aurreikuspena?

Iruñean, 2008ko uztailaren 23an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Galdera, ikurren legearen aplikazioaren ondorioz udaletara bidalitako errekerimenduei buruzkoa.**

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, ikurren legearen aplikazioaren ondorioz udaletara bidalitako errekerimenduei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Toki Administrazioako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Sinboloei buruzko legearen aplikazioari buruzko galdera.

- Zenbat errekerimendu bidali dizkie zure departamentuak udalei Sinboloei buruzko Foru Legea aplikatu dadin ikur frankistak erretiratzeari dagokionez?

- Zein dira?

Iruñean, 2008ko uztailaren 23an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Galdera, Media Luna parkeko suhiltzaileen parkearen etorkizunari eta etorkizunean Alde Zaharrak eta Bigarren Zabalguneak izanen duten suhiltzaileen zerbitzuari buruzkoa.**

*TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, Media Luna parkeko suhiltzaileen parkearen etorkizunari eta etorkizunean Alde Zaharrak eta Bigarren Zabalguneak izanen duten suhiltzaileen zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jimenez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Lehendakariari, Justizia eta Barne Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

1.- Cordovillako suhiltzaileen parke zentral berria abian jartzera doan garai honetan, zer aurrekusi du Nafarroako Gobernuak Media Luna parkeko suhiltzaileen parkerako?

2.- Zer asmo dauka Nafarroako Gobernuak etorkizunean Iruñeko Alde Zaharrari eta Bigarren Zabalguneari suhiltzaileen zerbitzua emateari dagokionez?

Iruñean, 2008ko uztailaren 28an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

## **Galdera, Nafarroako Liburutegia eta Filmoteka eraikitzeke lanei buruzkoa.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Liburutegia eta Filmoteka eraikitzeke lanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak erantzun diezaion:

Nafarroako Liburutegia eta Filmoteka

Zein da dotazio hori eraikitzeke obren egungo egoera, 2008ko uztailaren amaieran? Eginiko jarduketak eta egiteke daudenak zehaztea nahi nuke.

Iruñean, 2008ko uztailaren 30ean.

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, jakiteko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko zer kontusailetan izanen duen eragina aurrekontuen murrizketak.**

### *PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko zer kontusailetan izanen duen eragina aurrekontuen murrizketak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak erantzun diezaion:

Ekonomia Kontseilari Miranda jaunak iragarri du Nafarroako Gobernuaren aurrekontuetan 150 milioi euroko murrizketa izanen dela. Kultura eta Turismo Departamentuko zer kontusailetan izanen du eragina murrizketa horrek?

Iruñean, 2008ko uztailaren 30ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

---

## **Galdera, Nafarroako Antzerki Sareari buruzkoa.**

### *PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Antzerki Sareari jaunak aurkeztutako galdera, Patxi Telletxea Ezkurra buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak erantzun diezaion:

Ekonomia Kontseilari Miranda jaunak 2008rako iragarritako aurrekontu-murrizketak eragina izanen al du Nafarroako Antzerki Sarearen sorreran? Zer zuzkidura izanen du ekimen horrek 2008ko kontu publikoetan?

Iruñean, 2008ko uztailaren 30ean.

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Museoen Foru Legeari buruzkoa.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Museoen Foru Legeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak erantzun diezaion:

Noiz igorriko du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura Museoen Foru Legea?

Iruñean, 2008ko uztailaren 30ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

---

## **Galdera, Nafarroako dokumentu ondareari buruzko Foru Legea Parlamentuan aurkezteko epeari buruzkoa.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako dokumentu ondareari buruzko Foru Legea Parlamentuan aurkezteko epeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak erantzun diezaion:

Noiz igorriko du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura Dokumentu Ondareari buruzko Foru Legea?

Iruñean, 2008ko uztailaren 30ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra



## **Galdera, jakiteko zergatik hautatu den aurrekontuen murrizketarako toki entitateek 0tik 3 urterako ikastetxeak eraikitzeak dirulaguntzen kontusaila.**

### *PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik hautatu den aurrekontuen murrizketarako toki entitateek 0tik 3 urterako ikastetxeak eraikitzeak dirulaguntzen kontusaila.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera

hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak erantzun diezaion:

Nafarroako Aldizkari Ofizialak uztailaren 28an argitaratu zuen 252/2008 Ebazpena, uztailaren 4koa, Ikuskapen eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak emana, apirilaren 1eko 91/2008 Ebazpena aldatzen duena. Ebazpen horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateei dirulaguntzak emateko deialdia onetsi zen 0tik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzako ikastetxe publikoak eraikitzeak.

Ebazpen horretan xedatzen denez, "Momentu honetan aurrekontuan dagoen diruaren arabera, beharrezkoa da aipatu dirulaguntzen deialdiko aurrekontua mugatzea, apirilaren 1eko 91/2008 Ebazpenaren bitartez onetsita zeuden 8.000.000,00 euroak gehienez ere 5.975.000 eurora murriztuta."

Galdera honi erantzutea nahi dut:

Zergatik hautatu da kontusail hori aurrekontuen murrizketarako? Zer toki erakunde ukituko ditu murrizketak horrek?

Iruñean, 2008ko uztailaren 31n

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Aragón ibaitik eta Villafrancako Europar Batasunaren Interese-ko Lekutik gertu dagoen arroaren kutsadura arriskuari buruz, ondoko lursailean hondakin organikoak kontrolik gabe botatzearen ondorioz.**

### *ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Aragón ibaitik eta Villafrancako Europar Batasunaren Intereseko Lekutik gertu dagoen arroaren kutsadura arriskuari buruz, ondoko lursailean hondakin organikoak kontrolik gabe botatzearen ondorioz.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galde-

ra hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zioen azalpena

Prentsaren bidez jakin dugu joan den uztailaren 4an Villafrancan 1.000 eta 1.200 tona bitarte hondakin isuri zirela; hondakin horien artean animalien hondakinak eta araztegiatako lohiak eta lokatzak zeuden.

Prentsan jasotako informazio horren arabera, Ingurumen Integrazioko Zerbitzuak udalari adierazi zion lursailaren jabeari eskatu behar zitzaioela hondakin-piloak barreiatzeko eta lehenbailehen lurperatzeko. Alabaina, lehen begiratuan, ez dirudi hondakinak lurperatzea jarduketa egokia denik, baldin eta hondakin horiek kaltegarriak ez direla ziurtatzen duen informazio guztia eskueran ez badago.

Galdera honi erantzutea nahi dut:

Kutsadura-arriskurik izan al dute kontrolik gabeko isurketa egin den lursailetik gertu dagoen arroak, Aragón ibaiak eta lursail horrekin mugakide den Europar Batasunaren Intereseko lekuak?

Iruñean, 2008ko abuztuaren 5ean

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, Villafrancako hondakin organikoak kontrolik gabe botatzearen ondorioz ireki diren zehapen-espedienteei buruzkoa.**

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Villafrancako hondakin organikoak kontrolik gabe botatzearen ondorioz ireki diren zehapen-espedienteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galde-

ra hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zioen azalpena

Prentsaren bidez jakin dugu joan den uztailaren 4an Villafrancan 1.000 eta 1.200 tona bitarte hondakin isuri zirela; hondakin horien artean animalien hondakinak eta araztegietako lohiak eta lokatzak zeuden.

Prentsan jasotako informazio horren arabera, Ingurumen Integrazioko Zerbitzuak udalari adierazi zion lursailaren jabeari eskatu behar zitzaizkion hondakin-piloak barreiatzeko eta lehenbailehen lurperatzeko. Alabaina, lehen begiratuan, ez dirudi hondakinak lurperatzea jarduketa egokia denik, baldin eta hondakin horiek kaltegarriak ez direla ziurtatzen duen informazio guztia eskueran ez badago.

Galdera honi erantzutea nahi dut:

Isuri hori dela-eta, zer-nolako zehapen espedienteak ireki dira, eta zein da haien edukia?

Iruñean, 2008ko abuztuaren 5ean

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, satellite bidezko interneteko banda zabalak Nafarroa osoan estaldura izateari buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, satellite bidezko interneteko banda zabalak Nafarroa osoan estaldura izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Nafarroako Gobernuak azal dezake zergatik, baldin eta zenbait udali idatziz ziurtatu badie, oraindik ez den operatiboa satelite bidezko interneteko banda zabalaren estaldura?

2. Nafarroako Gobernuak lurreko telebista digitalaren estaldura jarriko zuela agindu zuenean, Nafarroako herritarren %100ez ari zen?

3. Nafarroako zenbait udal eta partikularrek errepikagailuak ezarri behar izan dituzte, Nafarroako Gobernuak kudeatzen duen telebista seinaleen errepikagailutik ez baita iristen telebista seinalea zenbait bizilekutara. Hori horrela, Nafarroako Gobernuak asmorik al du telebista seinaleen errepikagailuen proiektuak eta ezarpenak abian jartzeko, udalek eta partikularrek errepikagailuak ezartzeko duten behar hori murriztu eta guztiz ase arte?

Iruñean, 2008ko abuztuaren 5ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

---

## **Galdera, Nafarroako Eskola Kontseiluko zuzendari Ángel Urtasun jauna kargutik kentzeko arrazoiei buruzkoa.**

*MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Eskola Kontseiluko zuzendari Ángel Urtasun jauna kargutik kentzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Zein izan dira Nafarroako Eskola Kontseiluko zuzendari Ángel Urtasun jauna kargutik kentzeko arrazoiak?

Iruñean, 2008ko abuztuaren 6an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

## **Galdera, kultur intereseko ondare deklaraturiko eta Nafarroako kultur ondareari buruzko Foru Legearen arabera banatutako higieziei buruzkoa.**

### *ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, kultur intereseko ondare deklaraturiko eta Nafarroako kultur ondareari buruzko Foru Legearen arabera banatutako higieziei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena

Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legeak bere 14. artikuluan honakoa xedatzen du: "Honako hauek dira interes kulturalako ondasunak: Nafarroako kultur ondareko ondasun higiezin, higigarri nahiz ez-material aipagarrienak izan eta halakotzat aitortzen direnak foru lege horretan ezarritako prozeduraren arabera."

Foru lege horrek, halaber, bere 15. artikuluan ezartzen du interes kulturalako ondasun higiezin

horiek honako kategoria hauetakoren batean sartuko direla: monumentuak, multzo historikoak, leku historikoak, esparru arkeologikoak, kultur paisaiak, bide historikoak eta lorategi historikoak.

Legearen garapen-maila eta adierazpen horien maila eta garrantzia ezagutzeko, ondokoa jakin nahi dut:

Galderaren testua

1. Interes kulturalako ondasuntzat deklaraturiko higiezin zerrenda, legearen 15. artikuluan aurreikusitako kategorien arabera antolatua.

2. Interes kulturalako ondasuntzat deklaratzeko prozesuan dauden higiezin zerrenda, legearen 15. artikuluan aurreikusitako kategorien arabera antolatua.

3. Legegintzaldi honetan interes kulturalako ondasuntzat deklaratu daitezkeen higiezin zerrenda, legearen 15. artikuluan aurreikusitako kategorien arabera antolatua.

4. Orain arte interes kulturalako ondasuntzat deklaratu diren ondasun higigarrien zerrenda.

5. Interes kulturalako ondasuntzat deklaratzeko prozesuan dauden ondasun higigarrien zerrenda.

6. Interes kulturalako ondasuntzat deklaratu daitezkeen ondasun higigarrien zerrenda.

7. Orain arte interes kulturalako ondasuntzat deklaratu diren ondasun ez-materialen zerrenda.

8. Interes kulturalako ondasuntzat deklaratzeko prozesuan dauden ondasun ez-materialen zerrenda.

9. Interes kulturalako ondasuntzat deklaratu daitezkeen ondasun ez-materialen zerrenda.

Iruñean, 2008ko abuztuaren 6an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, prestatu diren, prestatzen ari diren eta etorkizunean egingen diren plan zuzendariei buruzkoa.**

### *ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, prestatu diren, prestatzen ari diren eta etorkizunean egingen diren plan zuzendariei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarrirakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena

Hona parlamentari honek Nafarroako Gobernuari egin zion galdera, idatziz erantzun ziezaion –galdera hori 2008ko uztailaren 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–:

1.- Iragan hurbilenean prestatutako plan zuzendariak, eta horien eraginpeko eraikinak edo enklabeak.

2.- Une honetan abian diren plan zuzendariak eta horien eraginpeko eraikinak edo enklabeak.

3.- Etorkizun hurbilenerako asmoak.

2008ko abuztuaren 1ean galdera horien erantzuna igorri zen, bai eta parlamentari honek biziki eskertzen dituen hausnarketa batzuk ere. Igorritako erantzun hartan alde zuzendari batzuen zerrenda ageri zen, baina ez dago jakiterik zeintzuk amaitu diren eta zeintzuk ari diren egiten; halaber, ez zen erantzunik eman etorkizun hurbilenerako asmoei buruz.

Aurrekoa ikusirik, eta auzi hori zehazki zertan den jakiteko –garrantzitsua da jakinaren gainean egotea, Nafarroako ondare historiko eta artistikoaren lehen plan zuzendaria prestatze aldera–, honakoa eskatzen da:

Galderaren testua

1.- Iragan hurbilenean prestatutako plan zuzendarien zerrenda, eta horien eraginpeko eraikinak edo enklabeak.

2.- Uneotan abian diren plan zuzendarien zerrenda, eta horien eraginpeko eraikinak eta enklabeak.

3.- Dagoeneko idatzita edo abian diren jarduketaren zerrenda –izen hori eman zitzaizkien galderari emandako erantzunean– eta horien eraginpeko eraikinak edo enklabeak.

4.- Etorkizun hurbilenerako aurreikusitako plan zuzendarien zerrenda.

5.- Etorkizun hurbilenerako aurreikusitako jarduketaren zerrenda.

Iruñean, 2008ko abuztuaren 12an

Kultura eta Turismo eleduna: Román Felones Morrás

## **Galdera, mendekotasun egoeraren aitorpenari eta Nafarroako Mendekotasun Agentziako ebaluatzaileei buruzkoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, mendekotasun egoeraren aitorpenari eta Nafarroako Mendekotasun Agentziako ebaluatzaileei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentariaren elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Nafarroako Minusbaliatuen Ordezkarien Komitearen arabera, Nafarroan 52.000 pertsona baino gehiago dira minusbaliotasun ezberdinak dituztenak. Uneotan, 13.000 pertsona baino gehiagok eskatu dute aitor dakien haien mendekotasun egoera eta eskubidea dutela autonomia sustatzeko eta laguntza emateko sistemaren baliabideak jasotzeko. Sistema horretako laguntzak arautzen dira Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak urtarrilaren 28an emandako 22/2008 Foru Aginduan.

Alabaina, pertsona minusbaliatuentzako zainketa-zerbitzuak lortzeko eskabidea egin duten familiek uste dute laguntza publikoak huts egin diela –laguntza horrek, hain zuzen, erakutsi zuen zein zen Gobernuaren jarduketaren ardatza 2007an, estatuan zein Nafarroan–. Familien etsipen hori ezintasun bilakatu da zenbait kasutan; izan ere, zainketa-zerbitzuak (egoitza- nahiz atsedeen-zerbitzuak) jasotzeko eskubidea aitortu bazaie ere, hori ezin izan da gauzatu, Nafarroan plazarik ez dagoelako. Eskariak ebazteko atzera-

penak, batetik, eta zerbitzuak eta laguntza ekonomikoak ukatzeak, bestetik, egoera estresagarriak –eta zenbaitetan muga-egoerak– eragin ditu, familia-ingurune batzuetan gaitortua ikusi dutelako pertsona minusbaliatua zaintzeko duten ahalmena.

Halaber, badago zerbait pertsona minusbaliatuen familia-ingurunerako zainketa-zerbitzuak eskatzen dituzten familiak harritu dituen: azalekoak dira Nafarroako Mendekotasun Agentziak minusbaliatuen mendekotasun egoera eta laguntzarako beharrak neurtzeko egiten dituen ebaluazioak; izan ere, agentziak alderdi fisiologikoetan jartzen du arreta, aintzat hartu gabe faktore psikikoek eta buruko atzerapenak ere pertsonaren autonomia mugatzen dutela. Ebaluazio horietan ez da kontuan hartzen zein den familiaren egoera, ondokoei dagokienez: minusbaliatua zaintzeko ahalmena, zaindarien prestakuntza eta adina, familiaren kide-kopurua, kanpoko laguntza, ahalmen ekonomikoa edo gainkarga egoerak. Horrek guztiak ezberdintasun garrantzitsuak eragiten ditu mendekotasun egoeran dauden pertsonak zainterakoan.

Horrenbestez, mendekotasun egoera aitortzeko eskabidea egin duten pertsonen buruz 2008ko datu hauek ezagutu nahi ditut, adinaren arabera banatuak: 65 urtetik beherakoak eta 65 urtetik gorakoak. Hori guztia, 2008ko ekainaren 30ean.

Galderak:

1) Zenbatek egin dute eskaria haien mendekotasun egoera aitortzeko, bai eta autonomia sustatzeko eta laguntza emateko sistemaren baliabideak jasotzeko ere? Zehaztu ondoko modalitateen eta goian adierazitako adin-tarteen arabera.

a) Arreta Eskaintzeko Banan-banako Programan sartzeko eskaria.

b) Familia-ingurune norbait zaintzeko prestazio ekonomikoa.

c) Laguntza pertsonalagatik prestazio ekonomikoa.

d) Gutxieneko prestazioa.

2) Zenbat eskabide onartu dira modalitate eta adin-tarte bakoitzean?

3) Zenbat eskabide errefusatu dira modalitate eta adin-tarte bakoitzean?

4) Zenbat eskabide daude ebazteke modalitate eta adin-tarte bakoitzean?

5) Zenbat eskabide egin dira minusbaliotasun psikikoak eta/edo buru-gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitza- eta atsedeen-zerbitzuak lortzeko? Zehaztu 65 urtetik beherakoak eta 65 urtetik gorakoak.

- a) onetsiak
- b) errefusatuak
- c) plaza baten zain

6) Zein da Nafarroako Menpekotasun Agentziako ebaluatzaileen profil profesionala, ezintasun fisikoak, zentzumenezkoak eta psikikoak eta endekapenezko gaixotasunak dituzten pertsonen mendekotasuna ebaluatzeko?

7) Ebaluatzaile profesionaleri alde aurretik esperientzia izatea eskatzen zaie ala nahikoa da tituluduna izatea?

8) Profesional bakoitzak edonolako ezintasunak ebaluatzen ditu ala ebaluatzaileak espezializatu egiten dira?

9) Etxez etxeko bisitaz gain, nola osatzen da mendekotasun egoeraren ebaluazioa? Zer irizpide dago prestazioen eskabideak onartzeko ala errefusatzeko?

10) Zein da mendekotasuna aitortzeko eskabi-deak ebatzi arte itxaron beharreko denbora uneotan?

Iruñean, 2008ko abuztuaren 21ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, Cascanteko kultur etxea eraikitzeari buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Cascanteko kultur etxea eraikitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Cascanteko kultur etxearen eraikuntza dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Zer neurri hartuko dira Queiles ibaiaren ahalmen hidraulikoa handitzeko? Zer neurri planteatu dira ibaiaren ezkerreko koto beste aldeko kotarekin berdindu arte igotzeko?

2.- Ingurumen arloko organo eskudunak eman al du aldeko txostenik? Hala balitz, txosten hori igortzea eskatzen dugu.

3.- Ur jabari publikoan egin beharreko jarduketak direnez, ibai arroaren ardura duen organismoak eman al du nahitazeko baimena?

Iruñean, 2008ko abuztuaren 25ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero



## **Galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak ez duen ordaindu 2007ko maiatzeko uholdeek Etxalarren eragindako kalteen gastuen %100.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak ez duen ordaindu 2007ko maiatzeko uholdeek Etxalarren eragindako kalteen gastuen %100.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

15 hilabete igaro dira 2007ko maiatzean uholdeak gertatu zirenetik, Etxalarren, besteak beste; alabaina, Nafarroako Gobernuak oraindik ez dio ordaindu Etxalarko Udalarri uholdeek eragindako kalteen gastuen %100. Nafarroako Gobernuak, foru lege, %100 hori ordaintzera derrigortua badago ere, horrelakorik oraindik ez da gauzatu Etxalarren kasuan.

Horrenbestez, parlamentari honek honakoa jakin nahi du:

1.- Nafarroako Gobernuak zergatik ez du ordaindu 2007ko maiatzeko uholdeek Etxalarren eragindako kalteen gastuen %100?

2.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du zein diren eman beharreko pausuak eta ordainketak egiteko egutegia, egoera hori konpontzeko?

Iruñean, 2008ko abuztuaren 25ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, N-121-A eta NA-4400 errepideen arteko bidegurutzeari eta eskualde horretako beste errepide batzuei buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, N-121-A eta NA-4400 errepideen arteko bidegurutzeari eta eskualde horretako beste errepide batzuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Etxalarretik igarotzen diren errepide batzuetan gabezia nabarmenak daude eta horrek Nafarroako Gobernuaren berehalako jarduketa eskatzen du.

Aspalditik, N-121-A eta NA-4400 errepideen arteko bidegurutzean "Stop" seinale bat dago Etxalarrera sartzeko. Seinale hori Beratik datozen ibilgailuentzat dago, eta ibilgailu horiek errepide nazionalaren bi erreien artean dagoen erreian gelditzera behartzen ditu. Beratik datozen ibilgailuek (eta are gehiago ibilgailu astunek) joera dute "Stop" seinalea dagoen erreian sartzeko, eta hori oso arriskutsua da han geldirik dauden ibilgailuentzat. Hori horrela, VI. legegintzaldian EA parlamentu-taldeak galdera bat aurkeztu zuen auzi horri buruz, eta Etxalarko Udalak ere eskakizun formal bat egin zuen –EA udal-taldeak eskatuta–. Gobernuak, ordea, ezezko erantzuna eman zuen, eta honakoa argudiatu zuen: eskatutako zuzenketa hori egin ahal izateko, beharrezkoa zen bihurgunearen erradioa aldatzea, eta bidegurutze hori desagertzear zegoen, handik gutxira errepide berria inauguratuko zelako. Ez dugu eztabaidatu nahi noiz egonen den erabilgarri errepide berri hori; baina agerikoa denez luze joko duela, ez dugu uste zuzena denik bihurgunearen erradioa aldatzeari buruzko argudioa. Uste dugu hain handinahia ez den jarduketa baten bidez ere konpon litekeela arazo hori: tarte horretako erreiak zabal litezke. Horretarako, nahikoa da beheanzko norabidean dauden babesguneak eta goranzkoan dagoen espazioa erabiltzea. Zutoin batzuk ere jar litezke "Stop" seinalea duen erreia beheantz doan erreitik bereizteko. Hori ere nahikoa litzateke tarte horri segurtasun handiagoa emateko.

Nafarroako Gobernuak berehala egin beharko lukeen beste jarduketa bat da Etxalar eta Zugarramurdi lotzen dituen errepideari dagokiona. Auzi hori ere bere garaian parlamentuan eginiko galdera baten eta Nafarroako aurrekontu orokorretan aurkeztutako mozio baten xede izan zen. Gure

ustez, bidegabea eta irreal da 17 kilometroko errepide baten mantentze lanak udalek egin behar izatea. Beharrezkoa da errepide horretan lurzorua egokitzea eta arekak zabaltzea, garbitzea eta finkatzea, eta hori egin beharko litzateke Toki Administrazioiko Departamentuak emandako laguntzen bidez, edo Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren bidez (errepide hori Nafarroako errepide sarean sar dadin). Toki Administrazioari egiten diogu eskaera hori, izan ere ezin dugu ahaztu departamentu horrek errepide hori berritu zuela Zugarramurdiko tartean, baina dirurik ez duela ematen Baztanen eta Etxalarren mantentze lanak egiteko. Errepide hori Nafarroako errepide sarean sartzeari dagokionez, uste dugu hori logikoa dela, bi udalerrri, Etxalar eta Zugarramurdi, 17 kilometro eginez lotzen baititu –Elizondo eta Otsondotik egin beharreko 55 kilometroen orde–. Gainera, errepide horretatik dabilen trafikoa ez da tokiko desplazamenduek eragiten dutena; beraz, are bidegabeagoa da udalen esku uztea horien mantentze lanak.

Horrenbestez, parlamentari honek honakoa jakin nahi du:

1.- Nafarroako Gobernuak neurririk hartuko al du NA-121-A errepidetik NA-4400 errepidera sartzeko "Stop" seinalean babesa areagotzeko (erreiak zabalduz nahiz zutoinak jarriz)? Ala etorkizunean beste errepide bat egonen dela argudiatuko du jarduketa txiki hori ez egiteko? Nafarroako Gobernuak arrisku objektiboa dagoen gunen bere horretan utziko du, jakinik, errepide berriaren lanak egiten ari badira ere, trafikoa egungo errepidetik igarotzen dela?

2.- Nafarroako Gobernuak asmorik al du, berehala nahiz III. plan zuzendarian, Etxalar-Zugarramurdi errepidea Nafarroako errepide sarean sartzeko eta horren ostean errepidea konpontzeko?

3.- Nafarroako Gobernuko Herri Lan Departamentuak ez badu errepide horren arduraren hartzen, Toki Administrazioiko Departamentuak ba al du inolako asmorik errepide hori Baztan eta Etxalar artean hobetzeko, Zugarramurdin egin duen moduan?

Iruñean, 2008ko abuztuaren 25ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, Donejakue bideko autobioiko trafikoa neurtzeko sistemari buruzkoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Donejakue bideko autobioiko trafikoa neurtzeko sistemari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak idatziz erantzuteko:

Zein da Donejakue bideko autobioiko trafikoa neurtzeko sistema?

Donejakue bideko autobioiko trafikoaren neurketa foru administratiokoa ez den enpresa batek egiten du, ala administrazioa bera arduratzen da neurketak egiteaz?

Administratiokoa ez den enpresa batek egiten badu Donejakue bideko autobioiko trafikoaren neurketa, zein da enpresa hori?

Iruñean, 2008ko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa.**

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena:

Egun, foru administrazioan dauden langileen %36 baino gehiago behin-behineko langileak dira. Ehuneko horrek ia hirukoiztu egiten du Europar Batasuneko aldi baterako langileen tasa, eta Nafarroako lan merkatuko batez bestekoa baino hamar puntu handiagoa da.

Tasa hori urte askoan mantendu da, eta handitu ere bai; baina UPN eta CDNren Gobernuak ez du ezer ere egiten horren aurrean.

Horrek oso ondorio negatiboa dakar administrazioan behin-behineko kontratua duten langileen zat, izan ere, urteak joan urteak etorri, ez dute

orekarik eta segurtasunik lortzen haien lan-baldintzetan.

Egoera horrek, halaber, ondorio negatiboak ditu gizarte osoarentzat; izan ere, laneko ezegonkortasunak larriki kaltetzen ditu administrazioak bere oinarrizko zerbitzu publikoak eskaintzeko dituen baldintzak eta bermeak.

Hori dela eta, galdera hauei erantzutea nahi dugu:

Zenbat langile zeuden behin-behineko kontratuak departamentuan, abuztuaren 1ean?

Zein da langile horiek departamentuan egiten duten ehuneko, abuztuaren 1ean?

Zer-nolako bilakaera izan du behin-behinekotasunak departamentuan azken bost urteotan?

Zer neurri hartu behar ditu departamentuak behin-behinekotasun tasa handia konpontzeko?

Iruñean, 2008ko abuztuaren 27an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

---

## **Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langile kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa.**

**ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langile kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena:

Egun, foru administrazioan dauden langileen %36 baino gehiago behin-behineko langileak dira. Ehuneko horrek ia hirukoiztu egiten du Europar Batasuneko aldi baterako langileen tasa, eta Nafarroako lan merkatuko batez bestekoa baino hamar puntu handiagoa da.

Tasa hori urte askoan mantendu da, eta handitu ere bai; baina UPN eta CDNren Gobernuak ez du ezer ere egiten horren aurrean.

Horrek oso ondorio negatiboa dakar administrazioan behin-behineko kontratua duten langileen tzentzat, izan ere, urteak joan urteak etorri, ez dute orekarik eta segurtasunik lortzen haien lan-baldintzetan.

Egoera horrek, halaber, ondorio negatiboak ditu gizarte osoarentzat; izan ere, laneko ezegonkortasunak larriki kaltetzen ditu administrazioak bere oinarrizko zerbitzu publikoak eskaintzeko dituen baldintzak eta bermeak.

Hori dela eta, galdera hauei erantzutea nahi dugu:

Zenbat langile zeuden behin-behineko kontratatuak departamentuan, abuztuaren 1ean?

Zein da langile horiek departamentuan egiten duten ehunekoa, abuztuaren 1ean?

Zer-nolako bilakaera izan du behin-behinekotasunak departamentuan azken bost urteotan?

Zer neurri hartu behar ditu departamentuak behin-behinekotasun tasa handia konpontzeko?

Iruñean, 2008ko abuztuaren 27an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuaren Eledunaren Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa.**

### *ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuaren Eledunaren Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentariaren elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena:

Egun, foru administrazioan dauden langileen %36 baino gehiago behin-behineko langileak dira.

Ehuneko horrek ia hirukoiztu egiten du Europar Batasuneko aldi baterako langileen tasa, eta Nafarroako lan merkatuko batez bestekoa baino hamar puntu handiagoa da.

Tasa hori urte askoan mantendu da, eta handitu ere bai; baina UPN eta CDNren Gobernuak ez du ezer ere egiten horren aurrean.

Horrek oso ondorio negatiboa dakar administrazioan behin-behineko kontratua duten langileentzat, izan ere, urteak joan urteak etorri, ez dute orekarik eta segurtasunik lortzen haien lan-baldintzetan.

Egoera horrek, halaber, ondorio negatiboak ditu gizarte osoarentzat; izan ere, laneko ezegonkortasunak larriki kaltetzen ditu administrazioak bere oinarrizko zerbitzu publikoak eskaintzeko dituen baldintzak eta bermeak.

Hori dela eta, galdera hauei erantzutea nahi dugu:

Zenbat langile zeuden behin-behineko kontratatuak departamentuan, abuztuaren 1ean?

Zein da langile horiek departamentuan egiten duten ehunekoa, abuztuaren 1ean?

Zer-nolako bilakaera izan du behin-behinekotasunak departamentuan azken bost urteotan?

Zer neurri hartu behar ditu departamentuak behin-behinekotasun tasa handia konpontzeko?

Iruñean, 2008ko abuztuaren 27an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, Toki Administrazioiko Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa.**

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Toki Administrazioiko Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Toki Administrazio Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena:

Egun, foru administrazioan dauden langileen %36 baino gehiago behin-behineko langileak dira. Ehuneko horrek ia hirukoiztu egiten du Europar

Batasuneko aldi baterako langileen tasa, eta Nafarroako lan merkatuko batez bestekoa baino hamar puntu handiagoa da.

Tasa hori urte askoan mantendu da, eta handitu ere bai; baina UPN eta CDNren Gobernuak ez du ezer ere egiten horren aurrean.

Horrek oso ondorio negatiboa dakar administrazioan behin-behineko kontratua duten langileentzat, izan ere, urteak joan urteak etorri, ez dute orekarik eta segurtasunik lortzen haien lan-baldintzetan.

Egoera horrek, halaber, ondorio negatiboak ditu gizarte osoarentzat; izan ere, laneko ezegonkortasunak larriki kaltetzen ditu administrazioak bere oinarritzko zerbitzu publikoak eskaintzeko dituen baldintzak eta bermeak.

Hori dela eta, galdera hauei erantzutea nahi dugu:

Zenbat langile zeuden behin-behineko kontratatuak departamentuan, abuztuaren 1ean?

Zein da langile horiek departamentuan egiten duten ehuneko, abuztuaren 1ean?

Zer-nolako bilakaera izan du behin-behinekotasunak departamentuan azken bost urteotan?

Zer neurri hartu behar ditu departamentuak behin-behinekotasun tasa handia konpontzeko?

Iruñean, 2008ko abuztuaren 27an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, Hezkuntza Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa.**

### *ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena:

Egun, foru administrazioan dauden langileen %36 baino gehiago behin-behineko langileak dira. Ehuneko horrek ia hirukoiztu egiten du Europar

Batasuneko aldi baterako langileen tasa, eta Nafarroako lan merkatuko batez bestekoa baino hamar puntu handiagoa da.

Tasa hori urte askoan mantendu da, eta handitu ere bai; baina UPN eta CDNren Gobernuak ez du ezer ere egiten horren aurrean.

Horrek oso ondorio negatiboa dakar administrazioan behin-behineko kontratua duten langileentzat, izan ere, urteak joan urteak etorri, ez dute orekarik eta segurtasunik lortzen haien lan-baldintzetan.

Egoera horrek, halaber, ondorio negatiboak ditu gizarte osoarentzat; izan ere, laneko ezegonkortasunak larriki kaltetzen ditu administrazioak bere oinarriko zerbitzu publikoak eskaintzeko dituen baldintzak eta bermeak.

Hori dela eta, galdera hauei erantzutea nahi dugu:

Zenbat langile zeuden behin-behineko kontratatuak departamentuan, abuztuaren 1ean?

Zein da langile horiek departamentuan egiten duten ehunekoa, abuztuaren 1ean?

Zer-nolako bilakaera izan du behin-behinekotasunak departamentuan azken bost urteotan?

Zer neurri hartu behar ditu departamentuak behin-behinekotasun tasa handia konpontzeko?

Iruñean, 2008ko abuztuaren 27an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, Osasun Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa.**

### *ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Osasun Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena:

Egun, foru administrazioan dauden langileen %36 baino gehiago behin-behineko langileak dira. Ehuneko horrek ia hirukoiztu egiten du Europar

Batasuneko aldi baterako langileen tasa, eta Nafarroako lan merkatuko batez bestekoa baino hamar puntu handiagoa da.

Tasa hori urte askoan mantendu da, eta handitu ere bai; baina UPN eta CDNren Gobernuak ez du ezer ere egiten horren aurrean.

Horrek oso ondorio negatiboa dakar administrazioan behin-behineko kontratua duten langileentzat, izan ere, urteak joan urteak etorri, ez dute orekarik eta segurtasunik lortzen haien lan-baldintzetan.

Egoera horrek, halaber, ondorio negatiboak ditu gizarte osoarentzat; izan ere, laneko ezegonkortasunak larriki kaltetzen ditu administrazioak bere oinarritzko zerbitzu publikoak eskaintzeko dituen baldintzak eta bermeak.

Hori dela eta, galdera hauei erantzutea nahi dugu:

Zenbat langile zeuden behin-behineko kontratatuak departamentuan, abuztuaren 1ean?

Zein da langile horiek departamentuan egiten duten ehunekoa, abuztuaren 1ean?

Zer-nolako bilakaera izan du behin-behinekotasunak departamentuan azken bost urteotan?

Zer neurri hartu behar ditu departamentuak behin-behinekotasun tasa handia konpontzeko?

Iruñean, 2008ko abuztuaren 27an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz



## **Galdera, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa.**

### *ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentariaren elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena:

Egun, foru administrazioan dauden langileen %36 baino gehiago behin-behineko langileak dira.

Ehuneko horrek ia hirukoiztu egiten du Europar Batasuneko aldi baterako langileen tasa, eta Nafarroako lan merkatuko batez bestekoa baino hamar puntu handiagoa da.

Tasa hori urte askoan mantendu da, eta handitu ere bai; baina UPN eta CDNren Gobernuak ez du ezer ere egiten horren aurrean.

Horrek oso ondorio negatiboa dakar administrazioan behin-behineko kontratua duten langileentzat, izan ere, urteak joan urteak etorri, ez dute orekarik eta segurtasunik lortzen haien lan-baldintzetan.

Egoera horrek, halaber, ondorio negatiboak ditu gizarte osoarentzat; izan ere, laneko ezegonkortasunak larriki kaltetzen ditu administrazioak bere oinarritzko zerbitzu publikoak eskaintzeko dituen baldintzak eta bermeak.

Hori dela eta, galdera hauei erantzutea nahi dugu:

Zenbat langile zeuden behin-behineko kontratatuak departamentuan, abuztuaren 1ean?

Zein da langile horiek departamentuan egiten duten ehunekoa, abuztuaren 1ean?

Zer-nolako bilakaera izan du behin-behinekotasunak departamentuan azken bost urteotan?

Zer neurri hartu behar ditu departamentuak behin-behinekotasun tasa handia konpontzeko?

Iruñean, 2008ko abuztuaren 27an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa.**

### *ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuan abuztuaren 1ean dagoen behin-behineko langileen kopuruari eta langile horiek egiten duten ehunekoari buruzkoa.

